**AGINDUA, 2019KO UZTAILAREN 23KOA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, HASIERAKO ONARPENA EMATEN DIONA ELANTXOBEKO PORTUAREN ANTOLAMENDU PLAN BEREZIARI.**

1. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Sail honetako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzara bidali du Elantxobeko Portuaren Antolamendu Plan Bereziaren espedientea, izapideak egiteko.

2. Plan Berezi horren helburua da xehetasunez antolatzea Elantxobeko Portuaren Jabari Publikoaren eremua (Euskal Autonomia Erkidegoari - aurrerantzean, EAE- transferitua, Estatuaren portuen arloko hainbat zerbitzu EAEren esku uzteari buruzko maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez), Elantxobeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean eremu horretarako definitutako egiturazko antolamendua garatuz.

3. Plan Bereziaren dokumentuarekin batera, Ingurumen Azterketa Estrategikoa bidali da, zeina Ingurumen Administrazioko zuzendariaren 2018ko maiatzaren 4ko Ebazpenaren bidez emandako Irismen Dokumentuan ezarritakoari jarraikiz egin baita.

4. Halaber, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Kostaldearen eta

**ORDEN DE 23 DE JULIO DE 2019, DEL CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA, POR LA QUE SE APRUEBA INICIALMENTE EL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN DEL PUERTO DE ELANTXOBE.**

1. La Dirección y Asuntos Marítimos del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras ha remitido a la Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana de este Departamento el expediente del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Elantxobe, con objeto de que se proceda a su tramitación.

2. Este Plan Especial tiene por objeto establecer la ordenación pormenorizada del ámbito correspondiente al Dominio Público Portuario del Puerto de Elantxobe, transferido a la Comunidad Autónoma del País Vasco (en adelante CAPV) en virtud del Real Decreto 2380/1982, de 14 de mayo, sobre transferencias de servicios del Estado a la CAPV en materia de puertos, desarrollando la ordenación estructural definida para este Área por el Plan General de Ordenación Urbana de Elantxobe.

3. Junto con el documento del Plan Especial ha sido remitido el Estudio Ambiental Estratégico, realizado de acuerdo con lo señalado en el Documento de Alcance formulado mediante resolución de 4 de mayo de 2018, del Director de Administración Ambiental.

4. Así mismo, la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos ha aportado el

Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko maiatzaren 13ko txostena erantsi du, hasierako onarpenaren aurrekoa, non zenbait ohar egiten diren, dokumentuan kontuan hartu behar direnak behin betiko onarpena eman aurretik.

informe de 13 de mayo de 2019, de la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar, previo a la aprobación inicial, en el que se realizan una serie de consideraciones que se deberán tener en cuenta en el documento, previamente a su aprobación definitiva.

5.- Egindako dokumentazio teknikoak bete egiten ditu plan berezi bat izateko beharrezko diren betekizun guztiak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluaren araberakoak.

5.- La documentación técnica elaborada cumple los requisitos precisos para constituir un Plan Especial de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 69 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

6.- Plan Bereziaren izapidetzeari dagokionez, goian aipatutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagokio espediente honi hasierako onarpena ematea; izan ere, Plan Berezi bat da, eta horren onarpena Jaurlaritzaren eskumenekoa da, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren 4.g) eta 13.2.c) artikuluei jarraikiz.

6.- Respecto a la tramitación del Plan Especial, de conformidad con lo establecido en los artículos 95 y siguientes de la precitada Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, corresponde al Gobierno Vasco a través de este Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, la aprobación inicial de este expediente, por tratarse de un Plan Especial cuya aprobación compete al Gobierno Vasco, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4.g) en relación con el 13.2.c) del Decreto 77/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

Aplikatu beharreko legeria aztertu ondoren, hau

A la vista de la legislación de aplicación,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Elantxobeko Portuaren Antolamendu Plan Bereziari.

Primero.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Elantxobe.

Bigarrena.- Agindu hau argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta lurralde

Segundo.- Publicar la presente Orden en el Boletín Oficial de Bizkaia así como en el diario o diarios de

horretako hedadura handieneko egunkarian edo egunkarietan.

mayor tirada del territorio histórico de Bizkaia.

Hirugarrena.- Plan Berezi honek informazio publikoaren izapidea betetzea, goian adierazitako argitalpenetatik azkena egin eta hurrengo egunetik hasita, 2 hilabeteko epean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95.2 artikuluari jarraikiz.

Tercero.- Someter el presente Plan Especial al trámite de información pública durante un plazo de 2 meses a contar desde el día siguiente al de la última publicación de las citadas en el apartado anterior, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 95.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Laugarrena.- Ingurumen Azterketa Estrategikoa, Plan Bereziarekin batera, eragindako administrazio publikoen eta Irismen Dokumentuaren arabera aldez aurretik kontsulta egin zaien interesdunen iritzipean jartzea, 45 egun baliodunez, Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Cuarto.- Someter el Estudio Ambiental Estratégico junto con el Plan Especial a consulta de las Administraciones públicas afectadas y de las personas interesadas que han sido previamente consultadas de acuerdo con el Documento de Alcance, durante un plazo de 45 días hábiles desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Epe horietan zehar, aipatu dokumentuak honako leku hauetan egongo dira ikusgai, aztertu ahal izateko:

Durante los referidos plazos, los citados documentos quedarán de manifiesto para su examen en los siguientes lugares:

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.
Donostia kalea, 1.
Lakua I, 7. solairua
01010 Gasteiz

Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos
Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras
Donostia-San Sebastián, 1 – Lakua I, Planta 7ª
01010 Vitoria-Gasteiz

Elantxobeko Udala
Nagusia 21.
48310-Elantxobe (Bizkaia)

Ayuntamiento de Elantxobe
Nagusia, 21
48310-Elantxobe (Bizkaia)

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean, eta Irekia komunikazio-kanalean (www.irekia.euskadi.eus).

En la página web del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco así como en el canal de comunicación Irekia www.irekia.euskadi.eus.

Egindako alegazioak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza

En todo caso, las alegaciones que se formulen deberán ser dirigidas a la Dirección de Planificación Territorial,

eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzara bideratuko dira beti.

Urbanismo y Regeneración Urbana del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

Erabaki honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, Plan Berezia behin betiko onartzeko prozeduraren barruko izapidea delako.

El presente acuerdo no es susceptible de recurso al constituir un acto de trámite dentro del procedimiento de aprobación definitiva del Plan Especial.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 2019

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua
El Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

Ignacio María Arriola López